

Haizea Pérez Ormazabal bibliotekako kanpainan azken saritua

Azken eguneratzea: Ostirala, 02 Ekaina 2017 13:06

Argitaratua: Ostirala, 02 Ekaina 2017 12:49



Pasa den martxoaren 20an "Irakurri, gozatu, oparitu" kanpaina jarri zen martxan udal bibliotekan euskarazko irakurketa sustatzeko asmoz; kanpaina atzo amaitu zen eta bitarte horretan liburutegiko erabiltzaileek euskarazko liburuak irakurriz gozatzeaz gain, beste bat %35 merkeago erosteko txekia lortzeko aukera izan dute. Horretaz gain, maiatzean zein ekainean 30 euroko bi txekie zozketatu dira kanpainan parte hartu dutenen artean.

Horietako azkena izan da Haizea Pérez Ormazabal, 10 urteko neskatila. Xabier Matarranz, Kultur zinegotziaren eskutik jaso du saria.